

Gure zerbitzuak erabiltzen dituzunean, zure informazioa konfiantzaz ematen diguzu. Badakigu ardura handia dela eta gogor egiten dugu lan zure informazioa babesteko eta kontrola zure esku uzteko.

Pribatutasun-gidalerro hauekin ulertuko duzu zer informazio biltzen dugun, zergatik biltzen dugun eta zure informazioa nola eguneratu, kudeatu, esportatu eta ezaba dezakezun.

Europar Batasuneko edo Erresuma Batuko datu-babesaren legeak aplikatzen badira zure informazioa prozesatzeko, jarraian agertzen den [Europako eskakizunen atala](#) berrikus dezakezu zure eskubideei eta Google-k lege horiek gordetzeari buruzko informazio gehiago lortzeko.



Pribatutasun-egiaztapena

Pribatutasun-ezarpenak aldatu nahi dituzu?

[Egin pribatutasun-egiaztapena](#)

---

Indarrean jartzeko data: 2022(e)ko urriakren 4(a)

[Artxibatutako bertsioak](#)

---

Mundua modu berrietan arakatu eta harekin interakzioak izatea ahalbidetzen duen zerbitzu multzoa sortu dugu, egunero milioika pertsonen erabiltzen dutena. Hauek dira gure zerbitzuetako batzuk:

- Google aplikazioak, webguneak eta gailuak, hala nola Bilaketa, YouTube eta Google Home
- Chrome arakatzailerak, Android sistema eragilea eta antzeko plataformak
- Hirugarrenen aplikazio eta webguneek barnean hartzen dituzten produktuak, hala nola iragarkiak, estatistikak eta kapsulatutako Google Maps-eko mapak

Gure zerbitzuak hainbat modutara erabil ditzakezu pribatutasuna kudeatzeko. Adibidez, Google-ko kontu batean erregistra zaitezke mezu elektronikoak, argazkiak eta bestelako edukia sortu eta

kudeatzeko, edo bilaketa-emitza egokiagoak lortzeko. Halaber, Google-ren zerbitzu asko erabil ditzakezu saioa amaitu edo konturik sortu ez duzunean ere, hala nola Google-n bilaketak egin edo YouTube-n bideoak ikusteko. Halaber, sarea modu pribatua araka dezakezu (esaterako, Chrome-ren ezkutuko modua erabiliz). Pribatutasun-ekarpenak doitu egin ditzakezu edozein zerbitzutan, zer informazio biltzen dugun eta nola erabiltzen dugun kontrolatzeko.

Gauzak ahalik eta argien azaltzeko, adibideak, azalpen-bideoak, eta [gako-hitzen](#) definizioak gehitu ditugu. Pribatutasun-gidalerroen inguruko galderarik izanez gero, jarri gurekin [harremanetan](#).

---

## GOOGLE-K BILTZEN DUEN INFORMAZIOA

# Gure zerbitzuak erabiltzen dituzunean zer informazio mota biltzen dugun jakitea nahiko genuke

Erabiltzaile guztiei zerbitzu hobek eskaini ahal izateko biltzen dugu informazioa; hitz egiten duzun hizkuntza eta antzeko oinarriko informaziotik hasi eta informazio konplexuagora, hala nola [erabilgarrien gertatuko zaizkizun iragarkiak](#), [Interneten zuretzat garrantzitsuen diren pertsonak](#) edo YouTube-n agian gustatuko zaizkizun bideoak. Gure zerbitzuen erabileraren eta pribatutasun-ekarpenen kudeaketaren araberakoa da Google-k biltzen duen informazioa eta informazio horren erabilera.

Google-ko kontu batean saioa hasi ez duzunean, erabiltzen ari zaren araketaileari, aplikazioari edo [gailuari](#) lotutako [identifikatzaile eksklusiboak](#) erabilia gordetzen dugu bildutako informazioa. Horrela, araketaile-saioetarako zure hobespenak mantentzen dituzkegu; esaterako, zein den zure hizkuntza hobetsia, edo bilaketa-emitza eta iragarki egokiagoak erakustea nahi duzun ala ez sarean egin dituzun jardueretan oinarrituta.

Halaber, saioa hasi duzunean, zure Google kontuan gordetako informazioa biltzen dugu; [datu pertsonal](#) gisa tratatzen ditugunak, alegia.

## Sortzen dituzun edo ematen dizkiguzun gauzak

Google kontu bat sortzen duzunean, zure izena eta pasahitza dituzten [datu pertsonalak](#) ematen dizkiguzu. Halaber, zure kontuan [telefono-zenbakia](#) edo [ordainketa-informazioa](#) gehi ditzakezu. Informazioa eman diezagukezu Google kontuan saioa hasi ez duzunean ere, hala nola helbide

elektronikoa, Google-rekin harremanetan jartzeko edo gure zerbitzuei buruzko berritasunak jasotzeko.

Gure zerbitzuak erabiltzen dituzunean, sortzen, kargatzen edo besteengandik jasotzen duzun edukia ere biltzen dugu. Hala nola idatzi eta jaso dituzun mezu elektronikoak, gorde dituzun argazkiak eta bideoak, sortu dituzun dokumentuak eta kalkulu-orriak eta YouTube bideoetan egin dituzun iruzkinak.

## Gure zerbitzuak erabiltzen dituzunean jasotzen dugun informazioa

### Aplikazioak, arakatzailleak eta gailuak

Google zerbitzuetan sartzeko erabiltzen dituzun aplikazioei, arakatzaillei eta [gailuei](#) buruzko informazioa biltzen dugu, eta, horrela, hainbat eginbide eskaini ditzakegu; esaterako, produktuei buruzko eguneratze automatikoak bidaltzea eta pantaila iluntzea batera gutxi duzunean.

Biltzen dugun informazioak barnean hartzen ditu [identifikatzaile eskusiboak](#), arakatzaille mota eta ezarpenak, gailu mota eta ezarpenak, sistema eragilea, sare mugikorrari buruzko informazioa (operadorearen izena eta telefono-zenbakia barne), eta aplikazioaren bertsio-zenbakia. Zure aplikazio, arakatzaille eta gailuek gure zerbitzuekin duten interakzioari buruzko informazioa ere biltzen dugu; adibidez, [IP helbidea](#), hutsegite-txostenak, sistemaren jarduerak, eta eskaeraren data, ordua eta erreferentziako URLa.

Zure gailuko Google-ren zerbitzuren bat gure zerbitzariekin harremanetan jartzen denean biltzen dugu informazio hori; adibidez, Play Store-tik aplikazioaren bat instalatzen duzunean edo zerbitzuren batek eguneratze automatikoak bilatzen dituenean. [Google-ren aplikazioak dituen Android-eko gailu bat](#) erabiltzen baduzu, gailua aldi-aldi jarriko da Google-ren zerbitzariekin harremanetan, gailuari eta gure zerbitzuetarako konexioari buruzko informazioa emateko. Informazio horrek barnean hartzen ditu [gailu mota eta operadorearen izena](#), hutsegite-txostenak, instalatutako aplikazioak eta, gailuaren ezarpenen arabera, [Android-eko gailuari ematen diozun erabilerari buruzko bestelako informazioa](#).

### Zure jarduerak

Gure zerbitzuetan duzun jarduerari buruzko informazioa biltzen dugu, eta YouTube bideoak gomendatzeko erabiltzen dugu, besteak beste. Jarduerari buruzko informazioak hauek hartzen ditu barnean:

- bilatzen dituzun hitzak,
- ikusten dituzun bideoak,
- [edukian eta iragarkietan izandako ikustaldiak eta elkarrekintzak](#),
- [Ahotsari eta audioari buruzko informazioa](#)
- erosketetako jarduerak,
- harremanetan jartzeko eta edukia partekatzeko aukeratzen duzun jendea,
- gure zerbitzuak erabiltzen dituzten hirugarrenen webgune eta aplikazioetako jarduerak,
- [Google kontuarekin sinkronizatu](#) duzun Chrome arakatzeko historia.

[Deiak edo mezuak bidali eta jasotzeko erabiltzen badituzu gure zerbitzuak](#), deien eta mezuen erregistroetako informazioa bil dezakegu; adibidez, telefono-zenbakia, deitzailearena, jasotzen duen alderdiarena, desbideratze-zenbakiak, igorlearen eta hartzailearen helbide elektronikoak, deien eta mezuen ordua eta data, deien iraupena, bideratze-informazioa eta deien eta mezuen motak eta kopurua.

Joan Google kontura, bertan gordeta duzun jarduerari buruzko informazioa aurkitu eta kudeatzeko.



Joan Google kontura

---

## Zure kokapenari buruzko informazioa

Gure zerbitzuak erabiltzen dituzunean, zure kokapenari buruzko informazioa biltzen dugu hainbat eginbide eskaini ahal izateko, hala nola gidatzeko jarraibideak, inguruan dituzun gauzen bilaketa-emaitzak eta zure kokapen orokorrean oinarritutako iragarkiak.

Hainbat zehaztasun-maila daude zure kokapena zehazteko:

- GPSaren eta [zure gailuko beste sentsoare batzuen datuak](#)
- [IP helbidea](#)

- Google-ren zerbitzuetan egiten dituzun jarduerak, hala nola bilaketak edo etiketatu dituzun tokiak (adibidez, etxea edo lantokia)
- [Gailuaren inguruko gauzei buruzko informazioa](#), hala nola Wi-Fi sarbide-puntuak, mugikorretako dorreak eta Bluetooth konexioa gaituta duten gailuak.

Biltzen ditugun kokapen-datuak eta haiek gordeta edukitzen ditugun denbora gailuaren eta kontuko ezarpenen arabera dira, hein batean. Adibidez, [Android-eko gailuaren kokapena aktibatu edo desaktiba dezakezu](#) gailuaren ezarpenen aplikazioa erabilia. Halaber, [Kokapen-historia](#) aktiba dezakezu saioa hasita daukaten gailuak soinean daramatzazula bisitatzen dituzun tokien mapa pribatua sortu nahi baduzu. Horrez gain, Sareko eta aplikazioetako jarduerak ezarpena aktibatuta badago, Google-ren zerbitzuetan egiten dituzun bilaketak eta beste jarduera batzuk (baliteke kokapen-informazioa ere sartzea bertan, besteak beste) Google-ko kontuan gordeko dira. Lortu informazio gehiago [Google-k kokapen-informazioa erabiltzeko duen erari buruz](#).

---

Kasu batzuetan, [denentzat eskuragarri dauden iturburuak](#) ere erabiltzen ditu Google-k zuri buruzko informazioa biltzeko. Adibidez, zure izena tokiko egunkarian agertzen bada, baliteke Google-ren bilatzaileak artikulua hori indexatzea eta zure izena bilatzen duten pertsoneri erakustea. Bazkide fidagarriengandik ere jaso dezakegu zuri buruzko informazioa, hala nola Google-ren zerbitzuetan bistaratuko den enpresa-informazioa ematen diguten gida-zerbitzuengandik, gure enpresa-zerbitzuen bezero potentzialei buruzko informazioa ematen diguten marketin-bazkideengandik eta [erabilera okerrak eragozteko](#) informazioa ematen diguten segurtasun-bazkideengandik. Halaber, publizitate-bazkideengandik ere jasotzen dugu informazioa, [haien izenean publizitate- eta ikerketa-zerbitzuak emateko](#).

Hainbat teknologia erabiltzen ditugu informazioa biltzeko eta gordetzeko; besteren artean, [cookieak](#), [pixel-etiketak](#), memoria lokala (adibidez, [arakatzaileko web-historia](#) eta [aplikazioen datu-cacheak](#)), datu-baseak, eta [zerbitzariaren erregistroak](#).

---

## GOOGLE-K DATUAK BILTZEKO DITUEN ARRAZOIAK

# Zerbitzuak hobetzeko erabiltzen ditugu datuak

Helburu hauekin biltzen dugu informazioa gure zerbitzu guztietatik:

## Zerbitzuak emateko

Gure zerbitzuak emateko erabiltzen dugu informazioa; esaterako, bilatzen dituzun hitzak prozesatzen ditugu emaitzak lor ditzazun, edo edukia partekatzen laguntzen dizugu zure kontaktuen artean hartzaileak iradokita.

## Gure zerbitzuak mantentzeko eta hobetzeko

Halaber, gure zerbitzuek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko erabiltzen dugu zure informazioa; besteak beste, erregistratzen dituzuen eteteak jarraitu edo arazoak konpontzeko. Gure zerbitzuetan hobekuntzak egiteko ere erabiltzen dugu zure informazioa; adibidez, oker idatzi ohi diren bilaketa-hitzik ohikoenak zein diren jakiteak gure zerbitzuetako ortografia-eginbideak hobetzen laguntzen digu.

## Zerbitzu berriak garatzeko

Zerbitzu berriak garatzeko biltzen dugu informazioa lehendik dauden zerbitzuetatik. Adibidez, Google-ren lehen argazki-aplikazio Picasa-n jendeak argazkiak nola antolatzen zituen jakiteak lagundu zigun Google Argazkiak diseinatzen eta kaleratzen.

## Zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzeko, edukiak eta iragarkiak barne

Gure zerbitzuak pertsonalizatzeko erabiltzen dugu bildutako informazioa, hala nola gomendioak, eduki pertsonalizatuak eta bilaketa-emaitza pertsonalizatuak eskaintzeko. Adibidez, [Segurtasun-egiaztapenak](#) segurtasun-gomendioak ematen dizkizu, Google produktuak nola erabiltzen dituzun kontuan izanda. Halaber, Google Play-k instalatu dituzun aplikazioak, YouTube-n ikusi dituzun bideoak eta antzeko informazioa erabiltzen du agian gustatuko zaizkizun aplikazio berriak gomendatzeko.

Zure ezarpenei jarraikiz, zure interesen arabera iragarki pertsonalizatuak ere erakuts diezazkizukegu. Adibidez, "mendiko bizikletak" bilatuz gero, kirol-ekipamenduari buruzko iragarki bat ikus dezakezu Google-k hornitutako iragarkiak dituen webgune batean zabiltzanean. Iragarkien ezarpenetan kontrola dezakezu iragarkiak erakusteko erabiltzen dugun informazioa.

- Ez dizkizugu erakusten kontuzko kategorietan oinarritutako iragarki pertsonalatuak; esate baterako, arrazan, erlijioan, sexu-orientazioan edo osasunean oinarritutakoak.
- Ez dizugu iragarki pertsonalaturik erakusten Drive, Gmail edo Argazkiak zerbitzuetako edukian oinarrituta.
- Ez dugu partekatzen iragarleekin pertsonalki identifikatzen zaituen informaziorik (adibidez, zure izena edo helbide elektronikoa), zuk berariaz eskatu ezean. Adibidez, hurbileko loradenda baten iragarkia ikusten baduzu eta "sakatu deitzeko" botoia hautatzen baduzu, zure deia konektatuko dugu eta zure telefono-zenbakia parteka dezakegu loradenda horrekin.



[Joan Irargarkien ezarpenak atalera](#)

---

## Errendimendua neurtzeko

Estatistika eta neurketetarako erabiltzen ditugu datuak, gure zerbitzuak nola erabiltzen dituzun ulertzeko. Adibidez, gure webguneetara egiten dituzun bisiten datuak aztertzen ditugu; besteak beste, produktuen diseinua hobetzeko. Sakatzen dituzun iragarkiei buruzko datuak ere erabiltzen ditugu, iragarleei beren iragarkien kanpainen funtzionamendua ulertzen laguntzeko. Hori egiteko, hainbat tresna erabiltzen ditugu, Google Analytics barne. Google Analytics erabiltzen duten webgune edo aplikazioetara joaten zarenean, baliteke webgune edo aplikazio horren jarduerari buruzko informazioa gure iragarki-zerbitzuak erabiltzen dituzten beste webgune edo aplikazio batzuetako jarduerarekin lotzeko baimena eman nahi izatea Google Analytics-eko bezeroek Google-ri.

## Zurekin harremanetan jartzeko

Zurekin zuzenean harremanetan jartzeko erabiltzen dugu bildutako informazioa; besteak beste, zure helbide elektronikoa. Adibidez, jakinarazpen bat bidaliko dizugu jarduera susmagarriak hautematen baditugu; esaterako, ezohiko kokapen batetik zure Google kontuan saioa hasteko saiakera hautematen badugu. Edo gure zerbitzuetan egingo diren aldaketen eta hobekuntzen berri emango dizugu. Google-rekin harremanetan jarriz gero, zure eskaera erregistratuko dugu, izan dezakezun edozein arazo konpontzen laguntzeko.

## Google, gure erabiltzaileak eta publikoa babesteko

Gure zerbitzuen [segurtasuna eta fidagarritasuna](#) hobetzen laguntzeko erabiltzen dugu informazioa. Horrek barnean hartzen du Google, gure erabiltzaileak edo [publikoa](#) kalte litzaketen iruzurrak, erabilera okerrak, segurtasun-arriskuak eta arazo teknikoak aurreikustea eta haiei erantzutea.

---

Hainbat teknologia erabiltzen ditugu helburu horiekin zure informazioa prozesatzeko. Zure edukia aztertzen duten sistema automatikoak erabiltzen ditugu bilaketa-emitza pertsonalizatuak, iragarki pertsonalizatuak edo gure zerbitzuak erabiltzen dituzun modura egokitutako beste eginbide batzuk eskaintzeko. [Erabilera okerrak hautemateko](#) ere aztertzen dugu zure edukia, hala nola spama, malwarea eta legez kanpoko edukia. Halaber, [algoritmoak](#) erabiltzen ditugu datuetako ereduak hautemateko. Adibidez, Google Translate-k hizkuntzen artean komunikatzen laguntzen dio jendeari, itzultzeko eskatzen dizkiozun esaldietan ohiko ereduak hautemanez.

Gure zerbitzuetatik eta zure gailuetatik [biltzen dugun informazioa bateratu egingo dugu](#) arestian aipatutako helburuetarako. Adibidez, YouTube-n gitarra-jotzaileen bideoak ikusten badituzu, gitarra jotzen ikasteko ikastaro baten iragarkia ikus dezakezu gure iragarki-produktuak erabiltzen dituen webgune batean. Kontuaren ezarpenen arabera, baliteke [beste webgune eta aplikazio batzuetan egiten dituzun jarduerak zure informazio pertsonalarekin erlazionatzea](#), Google zerbitzuak eta Google-k erakutsitako iragarkiak hobetzeko.

Beste erabiltzaileek dagoeneko zure helbide elektronikoa edo identifikatzen zaituen informazioa badute, publikoki ikusgai duzun Google kontuko informazioa erakuts diezaiekegu; adibidez, zure izena eta argazkia. Horrela, jendeak zuk idatzitako mezu elektronikoak identifikatuko ditu, adibidez.

Berrespena eskatuko dizugu, informazioa Pribatutasun-gidalerro hauetan xedatutako helburuetarako ez beste batzuetarako erabili aurretik.

---

### PRIBATUTASUN-EZARPENAK

**Biltzen dugun informazioari eta haren erabilerari dagokionez, aukerak dituzu**



Gure zerbitzuetan pribatutasuna kudeatzeko ezarpen garrantzitsuenak deskribatuko dizkizu atal honek. [Pribatutasun-egiaztapenera](#) ere joan zaitezke, eta bertan, pribatutasun-ezarpen garrantzitsuak berrikusteko eta doitzeko aukera duzu. Tresna horietaz gain, pribatutasun-ezarpen zehatzak ere eskaintzen ditugu gure produktuetan. Informazio gehiago lortzeko, irakurri [Google-ren produktuen Pribatutasun-gida](#).



[Joan Pribatutasun-egiaztapenera](#)

---

## Informazioa kudeatzea, berrikustea eta eguneratzea

Saioa hasten duzunean, erabiltzen dituzun zerbitzuetan berrikusi eta egunera dezakezu informazioa. Adibidez, Google-rekin gordetako eduki mota zehatzak kudeatzen laguntzeko diseinatu genituen bai Argazkiak, bai eta Drive ere.

Google kontuan gordetako informazioa berrikusteko eta kontrolatzeko ere tokia sortu genuen. [Google kontuak](#) hauek hartzen ditu barnean:

## Pribatutasun-ezarpenak



### Jarduerak kontrolatzeko aukerak

Erabaki zer jarduera mota gorde nahi duzun zure kontuan. Adibidez, YouTube-ren Historia aktibatuta badago, ikusten dituzun bideoak eta bilatzen dituzun gauzak zure kontuan gordeko dira, gomendio hobeak lortzeko eta jarduerari utzi zenuen tokitik berrekiteko. Halaber, Sareko eta aplikazioetako jarduerak aktibatuta badago, Google-ren beste zerbitzuetan egiten dituzun bilaketak eta jarduerak kontuan gordeko dira, zerbitzu pertsonalizatuagoa lortzeko (esate baterako, bilaketa azkarragoak eta aplikazioen eta edukien gomendio lagungarriagoak). Era berean, Sareko eta aplikazioetako jarduerak ezarpenak azpiezarpen bat dauka [Google-ren zerbitzuak erabiltzen dituzten beste webgune, aplikazio eta gailu batzuetan egiten dituzun jarduerari buruzko informazioa](#) (adibidez, Android-en instalatzen eta erabiltzen dituzun aplikazioetakoa) Google-ko kontuan gorde nahi duzun ala ez kontrolatzeko, eta informazio hori Google-ren zerbitzuak hobetzeko erabiliko den ala ez zehazteko.

[Joan Jarduerak kontrolatzeko aukerak atalera](#)



### Iragarkien ezarpenak

Kudeatu Google-n eta iragarkiak erakusteko [Google-ren bazkide](#) diren webguneetan eta aplikazioetan agertzen zaizkizun iragarkien hobespenak. Interesak alda ditzakezu, zure datu pertsonalak zuri egokitutako iragarkiak erakusteko erabiltzen diren ala ez erabaki, eta zenbait publizitate-zerbitzu aktiba edo desaktiba ditzakezu.

[Joan Iragarkien ezarpenak atalera](#)

---



### Zuri buruz

Kudeatu Google-ko kontuan gordeta daukazu informazio pertsonala eta kontrolatu hura nork ikusiko duen Google-ren zerbitzuetan.

[Joan Zuri buruz atalera](#)

---



### Partekatutako gomendioak

Aukeratu izena eta argazkia agertzea nahi duzun ala ez zure jardueren ondoan, hala nola iragarkiekin batera ageri diren iritzi eta gomendioen ondoan.

[Joan Partekatutako gomendioak atalera](#)

---



### Google-ren zerbitzuak darabiltzaten webgune eta aplikazioak

Kudeatu Google-ren zerbitzuak erabiltzen dituzten webguneek eta aplikazioek (esaterako, Google Analytics) zer informazio partekatzen duten haien zerbitzuak atzitzen edo erabiltzen dituzunean.

[Joan Google-k haren zerbitzuak erabiltzen dituzten webgune eta aplikazioetako informazioa erabiltzeko duen era atalera](#)

---

## Informazioa berrikusteko eta eguneratzeko moduak



### Nire jarduerak

"Nire jarduerak" atalaren bidez, Google-ren zerbitzuetan saioa hasita daukazunean eta zerbitzu horiek erabiltzen dituzunean Google-ko kontuan gordetzen diren datuak berrikusi

eta kontrola ditzakezu, hala nola egindako bilaketak edo Google Play-ra egindako bisitak. Dataren eta gaiaren arabera araka dezakezu, eta jarduera batzuk edo guztiak ezabatu.

[Joan Nire jarduerak atalera](#)

---



### Google Panela

Google Panela atalaren bidez, produktu zehatzekin erlazionatutako informazioa kudea dezakezu.

[Joan Panela atalera](#)

---



### Datu pertsonalak

Kudeatu harremanetarako informazioa; esate baterako, zure izena, helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia.

[Joan Datu pertsonalak atalera](#)

---

Saioa amaitzen duzunean, arakatzaillearekin edo gailuarekin erlazionatutako informazioa kudea dezakezu, hauek barne:

- Saioa hasi gabe egindako bilaketen pertsonalizazioa: [aukeratu](#) bilaketa-jarduera erabiltzen den edo ez emaitza garrantzitsuagoak eta gomendioak eskaintzeko.
- YouTube ezarpenak: pausatu eta ezabatu [YouTube bilaketa-historia](#) eta [YouTube erreprodukzio-historia](#).
- Iragarkien ezarpenak [kudeatu](#) Google-n eta iragarkiak erakusteko Google-ren bazkide diren webguneetan eta aplikazioetan agertzen zaizkizun iragarkiak ikusteko hobespenak.

## Informazioa esportatzea, kentzea eta ezabatzea

Google kontuko edukiaren kopia esporta dezakezu, babeskopia egin nahi baduzu edo Google-tik kanpoko beste zerbitzuren batekin erabili nahi baduzu.

---



## Zure datuak esportatzea

---

Informazioa ezabatzeko, honako hau egin dezakezu:

- Edukia [Google zerbitzu zehatzetatik](#) ezabatu.
- Kontuko elementu zehatzak bilatu eta ezabatu [Nire Jarduerak](#) erabilia.
- [Google produktu zehatzak ezabatu](#), produktu horiekin erlazionatutako informazioa barne.
- [Google kontu osoa ezabatu](#).



## Zure informazioa ezabatzea

---

[Kontu inaktiboan kudeatzailearen](#) bidez, beste norbaiti sarbidea eman diezaiokezu Google kontuko zenbait ataletara, ustekabeen kontua erabili ezinik geratuko bazina.

Azkenik, [edukia Google-ren zerbitzu jakin batetik kentzeko ere eska dezakezu](#), lege aplikagarrietan eta gure gidalerroetan oinarrituta.

---

Badira beste modu batzuk Google-k biltzen duen informazioa kontrolatzeko, Google kontu batean saioa hasita ala ez hasita ere; honako hauek dira horietako batzuk:

- Arakatzailleko ezarpenak: adibidez, Google-k arakatzaillean [cookie](#) bat noiz ezarri duen adierazteko konfiguratu dezakezu arakatzaillea. Cookie guztiak domeinu zehatz batetik edo domeinu guztietatik blokeatzeko ere konfiguratu dezakezu arakatzaillea. Baina gogoan izan gure zerbitzuek [cookieak erabiltzen dituztela behar bezala funtzionatzeko](#), hobetsitako hizkuntzak eta antzeko hobespenak gogoratzeko.
  - Gailu-mailako ezarpenak: gailuak zer informazio biltzen dugun zehazten duten aukerak izan ditzake. Adibidez, Android gailuan, [kokapen-ezarpenak alda](#) ditzakezu.
-

# Informazioa partekatzen duzunean

Beste pertsonekin informazioa partekatzea ahalbidetzen dute gailu askok, eta nola partekatu kontrola dezakezu. Adibidez, YouTube-n bideoak publikoki parteka ditzakezu, edo bideoak pribatu mantendu. Gogoratu, informazioa publikoki partekatzen duzunean, edukia bilaketa-motorren bidez eskuragarri egongo dela; besteak beste, Google Bilaketaren bidez.

Saioa hasi eta Google-ren zerbitzu batzuekin interakzioan jarduten duzunean (adibidez, YouTube-ko bideoen bat iruzkintzen duzunean edo Play-ko aplikazioen bati buruzko iritzia idazten duzunean), zure izena eta argazkia agertuko dira jardueren ondoan. Informazio hori iragarkietan ere bistara dezakegu [Partekatutako gomendioak](#) ezarpenaren arabera.

## Google-k zure informazioa partekatzen duenean

Ez ditugu partekatzen zure datu pertsonalak Google-tik kanpoko enprekin, erakundeekin edo banakakoekin, kasu hauetan izan ezik:

### Zure onarpenarekin

Informazio pertsonala Google-tik kanpo partekatuko dugu, zuk horretarako baimena eman badiguzu. Adibidez, [Google Home erabiltzen baduzu erreserba bat egiteko](#) erreserba-zerbitzu baten bidez, baimena eskatuko dizugu jatetxe horrekin zure izena edo telefono-zenbakia partekatzeko. Halaber, zure datuak atzi ditzaketen [hirugarrenen aplikazioak eta webguneak berrikusteko eta kudeatzeko](#) kontrol-aukerak eskaintzen dizkizugu Google-ko kontuan. [Kontuzko informazio pertsonala](#) partekatzeko, zure berariazko baimena beharko dugu.

### Domeinu-administratzaileekin

Ikaslea bazara edo Google zerbitzuak erabiltzen dituen erakunderen batean lan egiten baduzu, zure kontua kudeatzen duten [domeinu-administratzaileak](#) eta saltzaileek sarbidea izango dute zure Google kontura. Honako hauek egin ahal izango dituzte:

- Zure kontuan gordetako informazioa atzitu eta gorde (adibidez, helbide elektronikoa).
- Zure kontuari buruzko estatistikak ikusi; esaterako, zenbat aplikazio instalatzen dituzun.

- Kontuaren pasahitza aldatu.
- Konturako sarbidea eten edo amaitu.
- Kontuko informazioa jaso, lege, arau, lege-prozesu edo gobernuaren eskaera aplikagarriak gordetzeko.
- Zure informazioa edo pribatutasun-ezarpenak ezabatzeko edo editatzeko gaitasuna murriztu.

## Kanpoan prozesatzeko

Gure [bazkideei](#) eta bestelako enpresa edo pertsona fidagarriei informazio pertsonala ematen diegu, gure izenean prozesuak dezaten, gure argibideei jarraikiz eta gure Pribatutasun-gidalerroak eta kasuan kasuko isilpekotasun- eta segurtasun-neurriak gordeta. Adibidez, zerbitzu-hornitzaileak erabiltzen ditugu datu-zentroak kudeatzeko, produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko, barneko enpresa-prozesuak hobetzeko, eta bezeroei eta erabiltzaileei laguntza-zerbitzu gehigarria eskaintzeko. YouTube-ko bideoen edukia berrikusteko (segurtasun publikoa bermatze aldera) eta erabiltzaileek gordetako audio-laginak aztertu eta entzuteko (audioa hautemateko Google-ren teknologiak hobetze aldera) ere erabiltzen ditugu zerbitzu-hornitzaileak.

## Legezko arrazoiengatik

Datu pertsonalak Google-tik kanpo partekatuko ditugu, informazioa atzitzea, erabiltzea, gordetzea edo ezagutzera ematea helburu hauetarako beharrezkoa dela uste badugu:

- Lege, arau, [lege-prozesu edo gobernuaren eskaera aplikagarriak](#) gordetzeko. Gure [Gardentasun-txostenean](#) partekatzen dugu gobernuetatik jasotzen ditugun eskaera motei eta eskaera kopuruari buruzko informazioa.
- Zerbitzu-baldintza aplikagarriak gordearazteko, urratze posibleak aztertzeke barne.
- Iruzurrak, segurtasun-arazoak eta arazo teknikoak hautemateko, ekiditeko, edo bestela, bideratzeko.
- Google-ren, [gure erabiltzaileen](#) edo publikoaren eskubideak, jabetza edo segurtasuna kaltetzea eragozteko, lege aplikagarriek eskatzen edo onartzen duten heinean.

Identifikatzeko balio ez duten datuak parteka ditzakegu, publikoki eta gure bazkideekin, hala nola argitaratzaileekin, iragarleekin, garatzaileekin edo copyright-jabeekin. Adibidez, gure zerbitzuen erabilera orokorrari buruzko joerak erakusteko partekatzen dugu informazioa publikoki. Bazkide zehatzei baimena ematen diegu zure arakatzailetik edo gailutik informazioa biltzeko, iragarkiak jartzeko edo neurketak egiteko, euren cookieak edo antzeko teknologiak erabilia.

Google-k bateratze-, erosketa-, edo akzio-salmenta prozesu batean parte hartzen badu, zure datu pertsonalen isilpekotasuna mantentzen jarraituko dugu eta prozesuaren eragina jasaten duten erabiltzaileei jakinarazpen bat iritsaraziko diegu datu pertsonalak transferitu edo beste pribatutasun-gidalerro batzuen menpe ezarri aurretik.

---

## IZAN INFORMAZIOA ONDO BABESTUTA

# Segurtasuna eskaintzen dugu gure zerbitzuetan, zure informazioa babesteko

Google produktu guztiek eskaintzen dituzte zure informazioa etengabe babesten duten segurtasun-neurri sendoak. Gure zerbitzuak mantentzeagatik lortzen ditugun estatistiken bidez, segurtasun-mehatxuak hautematen eta haiek zuregana iritsi aurretik automatikoki blokeatzen ditugu.

Arriskutsua den zerbait hauteman eta jakin beharko zenukeela uste badugu, jakinaraziko dizugu eta hobeto babestuta egoteko pausoak ematen lagunduko dizugu.

Gogor egiten dugu lan zu eta Google babesteko, informazioa baimenik gabe ez atzitzeko, aldatzeko, ezagutzera emateko edo deuseztatzeko; besteak beste:

- Enkriptatzea erabiltzen dugu zure datuak pribatu mantentzeko bidaltze-prozesuan daudenean.
- Segurtasun-eginbideen sorta bat eskaintzen dugu; esate baterako, [Arakatzeko seguruia](#), Segurtasun-egiaztapena eta [Bi urratseko egiaztapena](#), zuri kontua babesten laguntzeko.
- Gure informazioa biltzeko, biltegiratzeko eta prozesatzeko jardunbideak berrikusten ditugu, segurtasun-neurri fisikoak barne, sistemak baimenik gabe atzitzea eragozteko.
- Informazio pertsonala prozesatu behar duten Google langileei, azpikontratatuak eta agenteei mugatzen diegu informazio pertsonalerako sarbidea. Sarbide hori duen edonork ere kontratuz xedatutako isilpekotasun-betebeharrak ditu eta betebeharrak horiek urratuz gero, zigorrak jasango ditu eta kontratua amaitu egingo da.

---

## INFORMAZIOA ESPORTATZEA ETA EZABATZEA

# Nahi duzunean esporta dezakezu informazioaren kopia, edo Google kontutik informazioa ezabatu.

Google kontuko edukiaren kopia esporta dezakezu, babeskopia egin nahi baduzu edo Google-tik kanpoko beste zerbitzuren batekin erabili nahi baduzu.



### Zure datuak esportatzea

---

Informazioa ezabatzeko, honako hau egin dezakezu:

- Edukia [Google zerbitzu zehatzetatik](#) ezabatu.
- Kontuko elementu zehatzak bilatu eta ezabatu [Nire Jarduerak](#) erabilita.
- [Google produktu zehatzak ezabatu](#), produktu horiekin erlazionatutako informazioa barne.
- [Google kontu osoa ezabatu](#).



### Zure informazioa ezabatzea

---

---

## INFORMAZIOA ATXIKITZEA

Bildu ditugun datuak atxikitzeko aldia aldatu egiten da, zer diren, nola erabiltzen ditugun eta ezarpenak nola konfiguratu dituzun kontuan hartuta:

- Datu batzuk edonoiz ezaba ditzakezu; esate baterako, [informazio pertsonala](#) edo zeuk sortu edo kargatutako edukia (besteak beste, [argazkiak](#) eta [dokumentuak](#)). Kontuan gordeta daukazun [jarduerei buruzko informazioa](#) ere ezaba dezakezu edo, nahiago baduzu, tarte jakin baten



ondoren [automatikoki ezaba dadin konfiguratu](#). Datuak Google-ko kontuan gordeko ditugu zuk ezabatu arte (edo automatikoki ezabatzen diren arte, hala aukeratu baduzu).

- Beste datu batzuk, berriz, automatikoki ezabatzen dira, edo anonimo bihurtzen tarte jakin bat igarotakoan; haien artean leudeke, besteak beste, zerbitzariaren erregistroetako [publizitate-datuak](#).
- Google-ko kontua ezabatzen duzun arte gordeko ditugu datu batzuk, hala nola gure zerbitzuak zer maiztasunekin erabiltzen dituzun.
- Beste datu batzuk luzaroago atxikitzen ditugu, enpresa- edo lege-helburuetarako beharrezkoak direnean, hala nola segurtasuna bermatzeko, iruzurrak eta erabilera okerrak ekiditeko edo finantza-erregistroak mantentzeko.

Datuak ezabatzen dituzunean, ezabatze-prozesu bati jarraitzen diogu, zure datuak zerbitzarietatik segurtasunez eta erabat kenduko direla edo modu anonimoan soilik atxikituko direla bermatzeko. Gure zerbitzuek informazioa ustekabean edo maltzurki ezabatzea eragozten dutela ziurtatzen saiatzen gara. Hori dela eta, atzerapenak egon daitezke zerbait ezabatzen duzunikot kopiak gure sistema aktibo eta babeskopia-sistemetatik ezabatzen diren arte.

Irakurri Google-ren [datuak atxikitze aldiei](#) buruzko informazio gehiago, hala nola zure informazioa ezabatzeko zenbat denbora behar dugun.

---

## LEGEGILEEN ESANA BETETZEA ETA HAIKIN ELKARLANEAN ARITZEA

Erregulariki berrikusten ditugu Pribatutasun-gidalerro hauek eta ziurtatzen dugu zure informazioa gidalerro horiek gordeta prozesatzen dugula.

## Datuen transferentziak

Mundu osoan ditugu [zerbitzariak](#), eta baliteke zure informazioa bizi zaren herrialdetik kanpoko zerbitzarietan prozesatzea. Herrialde bakoitzak bere legeak ditu datuak babestearen inguruan; batzuek besteek baino babes gehiago eskaintzen dute. Informazioa non prozesatzen den kontuan izan gabe, beti aplikatzen ditugu gidalerro hauetan azaldutako babesak. Halaber, datu-transferentzien inguruko [lege-esparru](#) jakin batzuk gordetzen ditugu.

Idatziko kexa formalak jasotzen ditugunean, kexa egin duen pertsonarekin harremanetan jarritz erantzungo dugu. Kasuan kasuko autoritate legegileekin egiten dugu lan, datuen babesaz arduratzen diren autoritate lokalekin barne, zuzenean zurekin ebatzi ezin ditugun datu pertsonalen transferentziei buruzko kexak ebazteko.

## Europako eskakizunak

### Zure eskubideak baliatzeko eta Google-rekin harremanetan jartzeko moduak

Europar Batasuneko (EB) edo Erresuma Batuko datu-babesaren legeak aplikatzen badira zure informazioa prozesatzeko, gidalerro hauetan azaldutako [kontrol-aukerak](#) eskura dituzu, zure informaziorako sarbidea eskatzeko, eguneratzeko, [kentzeko](#) eta haren prozesamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izan ditzazun. Halaber, zure informazioa prozesatzearen edo beste zerbitzari batera esportatzearen aurka egiteko eskubidea duzu.

Zure eskubideei buruzko beste galdera edo eskaerarik baduzu, [jarri Google-rekin eta datuak babesteko gure ordezkaritzarekin harremanetan](#). Tokiko legeriari jarraikiz daukazun eskubideen inguruko kezkarik baduzu, dagokizun datuak babesteko tokiko agintaritzarekin ere jar zaitezke harremanetan.

### Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna

Zerbitzuaren berriazko pribatutasun-ohar batean besterik adierazi ezean, [zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna](#) zure kokapenaren arabera izango da:

- Europako Esparru Ekonomikoan edo Suitzan dagoen Google-ren zerbitzuen erabiltzaile bat bazara, Google Ireland Limited izango da arduraduna (helbidea: Gordon House, Barrow Street, Dublin 4, Ireland).
- Erresuma Batuan dagoen Google-ren zerbitzuen erabiltzaile bat bazara, aldiz, Google LLC izango da arduraduna (helbidea: 1600 Amphitheatre Parkway, Mountain View, California 94043, USA).

[Google Bilaketa](#), Google Maps eta antzeko zerbitzuetan indexatzen eta bistaratzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Google LLC da, edonon zaudela ere.

## Informazioa prozesatzeko legeko oinarriak

Gidalerro hauetan azaldutako [helburuekin](#) prozesatuko dugu zure informazioa, euskarri juridiko hauetan oinarrituta:

### Zure onarpenarekin

Zure informazioa helburu jakinetarako prozesa dadin onartzea eskatzen dizugu, eta baimena edonoiz ukatzeko eskubidea duzu. Adibidez, baimena eskatzen dizugu zure interesetan oinarritutako iragarkiak eta antzeko zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzeko. Halaber, zure ahots- eta audio-jarduerak biltzeko baimena eskatzen dizugu, ahots-hautematerako. [Google-ko kontuan](#) kudea ditzakezu ezarpenak. [Informazioa partekatzea](#) atalean azaldu bezala, informazio pertsonala Google-tik kanpo partekatuko dugu, baldin eta zuk horretarako baimena eman badiguzu. Halaber, zure datuak atzi ditzaketen [hirugarrenen aplikazioak eta webguneak berrikusteko eta kudeatzeko](#) kontrol-aukerak eskainiko dizkizugu Google-ko kontuan.

### Benetako interesak ditugunean

Informazioa gure eta [hirugarrenen](#) benetako interesetarako prozesatzen dugu eta zure pribatutasuna babesten duten [aurreneurri egokiak](#) aplikatzen ditugu. Hala, zure informazioa honako hauetarako prozesatzen dugu, adibidez:

- Gure zerbitzuak emateko, mantentzeko eta hobetzeko, eta horrela, erabiltzaileen beharrak asetzeko.
- Erabiltzaileentzat erabilgarriak diren produktu eta eginbide berriak garatzeko.
- Jendeak gure zerbitzuak nola erabiltzen dituen ulertzeko eta gure zerbitzuen errendimendua [ziurtatzeko eta hobetzeko](#).
- [Gure zerbitzuak pertsonalizatzeko](#) eta erabiltzaileentzat zerbitzu hobea eskaintzeko (eta, beharrezkoa denean, zerbitzuak haurren adinetara egokitzeko).
- Erabiltzaileei gure zerbitzuen berri emateko marketinerako.
- Publizitate-zerbitzuak emateko, gure zerbitzuetako asko erabiltzaileei komisorik gabe eskaini ahal izateko (iragarkiak pertsonalizatuak direnean, baimena eskatzen dizugu).

- Gure zerbitzuetan iruzurrak, erabilera okerrak, segurtasun-arazoak edo arazo teknikoak hautemateko, ekiditeko edo, bestela, bideratzeko.
- Google-ren, gure erabiltzaileen edo publikoaren eskubideak urratzea eragozteko, lege aplikagarriek eskatzen edo onartzen duten heinean. Horren barnean sartzen da gobernuko aginpideei zure informazioa ezagutarazteko aukera.
- Publikoari mesede egiten dioten eta gure erabiltzaileentzat zerbitzuak hobetzen dituzten ikerketak egiteko.
- Gure bazkideekiko betebeharrak gordetzeko, hala nola garatzaileekiko eta copyright-jabeekiko.
- Lege-eskaerak gordetzeko, hala nola Zerbitzu-baldintzak urratu izana ikertzeko.

### Zerbitzu bat ematen ari garenean

Kontratu bidez eskatu duzun zerbitzua emateko prozesatzen ditugu datu batzuk. Adibidez, Google Drive-n biltegitratzeko toki gehiago erosten duzunean, ordainketa-informazioa prozesatzen dugu.

### Lege-betebeharrak gordetzen ari garenean

Zure datuak prozesatuko ditugu legez hala bete behar badugu; adibidez, lege-prozesu bati edo gobernuaren eskaera aplikagarri bati erantzun behar diogunean. Adibidez, legeak zenbait datu gordetzera behartzen gaitu batzuetan, helburu desberdinekin; besteak beste, finantza-erregistroak mantentzea (esaterako, Google-ri egindako ordainketak) edo zerga- eta kontabilitate-betebeharrak gordetzea.

---

### GIDALERRO HAUEI BURUZ

## Gidalerro hauek noiz aplikatu

Pribatutasun-gidalerro hauek Google LLC enpresak eta haren bazkideek eskainitako zerbitzu guztiei aplikatzen zaizkie, YouTube-k eta Android-ek eta hirugarrenen webguneek eskainitako zerbitzuak barne; adibidez, publizitate-zerbitzuak. Ez zaizkie aplikatuko Pribatutasun-gidalerro hauek barnean hartzen ez dituzten bestelako pribatutasun-gidalerroak dituzten zerbitzuei.

Pribatutasun-gidalerro hauek ez zaizkie aplikatuko honako hauei:

- Gure zerbitzuak iragartzen dituzten beste enpresen eta erakundeen informazio-jardunbideei
- Beste enpresek edo banakoek eskaintzen dituzten zerbitzuei, gidalerro hauek aplikatzen zaizkien Google-ren zerbitzuak barnean hartzen dituzten produktu eta webguneak, edo bilaketa-emaitzetan bistaratzen zaizkizun edo gure zerbitzuetatik lotura duten produktu eta webguneak barne

## Gidalerro hauetan egindako aldaketak

Pribatutasun-gidalerro hauek noizbehinka aldatzen ditugu. Ez dizkizugu Pribatutasun-gidalerro hauetan xedatzen zaizkizun eskubideak murriztuko zure berariazko baimenik gabe. Beti zehazten dugu azkeneko aldaketak noiz argitaratu genituen eta [artxibatutako bertsioetarako](#) sarbidea eskaintzen dizugu, begiratu ahal izan ditzazun. Aldaketek nolabaiteko garrantzia izanez gero, jakinarazpen aipagarriago bat iritsaraziko dizugu (besteak beste, zerbitzu jakin batzuetan, Pribatutasun-gidalerroetan egindako aldaketen berri ematen duten mezu elektronikoak bidaliko ditugu).

---

### ERLAZIONATUTAKO PRIBATUTASUN-JARDUNBIDEAK

## Google zerbitzu jakinak

Honako pribatutasun-jakinarazpen hauek Google zerbitzu batzuei buruzko informazio gehigarria eskaintzen dute:

- [Chrome eta Chrome sistema eragilea](#),
- [Payments](#)
- [Fiber](#)
- [Google Fi](#)
- [Google Workspace for Education](#)
- [Read Along](#)

- [Umeentzako YouTube](#)
- [Family Link](#) bidez kudeatutako Google kontuak, 13 urte (edo zure herrialdeari dagokion gutxieneko adina) baino gutxiagoko haurrentzat
- [Family Link-en](#) haur eta nerabeentzako pribatutasun-gida
- [Google-ren](#) Laguntzailea eginbideko haurrentzako eginbideetatik bildutako ahots- eta audio-informazioa

Google Workspace edo Google Cloud Platform erabiltzen duen erakunde bateko kide bazara, lortu informazio gehiago zerbitzu horiek zure informazio pertsonala batzeko eta erabiltzeko duten moduari buruz [Google Cloud-en Pribatutasun-oharrean](#).

## Beste baliabide erabilgarri batzuk

Honako esteka hauek baliabide erabilgarriak nabarmentzen dituzte, jardunbideei eta pribatutasun-ezarpenei buruz gehiago jakin dezazun.

- Zure kontua kudeatzeko erabil ditzakezun ezarpen ugari dituzu [Google kontuan](#).
- [Pribatutasun-egiaztapena](#) atalak Google kontuko pribatutasun-ezarpen nagusietan barrena gidatuko zaitu.
- [Google-ren Segurtasun-zentroa](#) atalean lortuko duzu informazioa segurtasun integratuari, pribatutasun-ezarpenei eta zure familiak Interneten gorde beharreko arauak ezartzeko tresnei buruz
- [Google-ren Nerabeentzako pribatutasun-gidan](#) pribatutasunari buruz egiten dizkiguten galdera nagusietako batzuei erantzuten diegu
- [Pribatutasuna eta baldintzak](#) atalak Pribatutasun-gidalerro hauen eta gure Zerbitzu-baldintzen testuinguru zabalagoa eskainiko dizu.
- [Teknologiak](#) atalak informazio gehiago eskainiko dizu honi buruz:
  - [Nola erabiltzen ditu Google-k cookieak?](#)
  - [Publizitate-produktuetarako](#) erabiltzen ditugun teknologiak

- [Google-k ereduaren detekzioa erabiltzeko duen era](#) (adibidez, argazkietan aurpegiak ezagutzeko)
  - [Google-k haren zerbitzuak erabiltzen dituzten webgune eta aplikazioetako informazioa erabiltzeko duen era](#)
- 

## Gako-terminoak

### Algoritmoa

Ordenagailu batek arazoak konpontzeko eragiketetan erabiltzen duen prozesua edo arau multzoa.

### Aplikazioko datuen cachea

Aplikazioko datuen cache esaten zaio gailuak datuak gordetzeko erabiltzen duen biltegiari. Besteak beste, web-aplikazioak Internetera konektatu gabe erabiltzeko balio du eta aplikazioen funtzionamendua hobetzen du, edukia bizkorrago karga baitezakete.

### Arakatzailleko web-historia

Webguneek arakatzaillearen web-biltegitratzea erabiltzen dute datuak gailuaren arakatzaillean gordetzeko. Gailuko memoriaren moduan erabiltzen bada, datuak saio batetik bestera gordetzen dira. Horrela, arakatzaillea irekitzen den hurrengoan aurreko saioko datuak eskura daitezke. Besteak beste, HTML 5 teknologiarik esker gordetzen dira datuak horrela.

### Cookieak

Karaktere-kate bat duten fitxategi txikiak dira cookieak, eta ordenagailura bidaltzen dira webgune batean sartzen zarenean. Webgune horretan berriro sartuz gero, hark zure arakatzaillea ezagutuko du cookieari esker. Erabiltzaileen hobespenak eta beste datu batzuk gordetzen dituzte cookieek. Arakatzaillea konfiguratu egin dezakezu cookie guztiak bazter ditzan edo cookieak bidaltzen zaizkionean horren berri eman diezazun. Hala ere, kontuan izan webgune batzuetako eginbideek eta zerbitzuek ez dutela behar bezala funtzionatzen cookierik gabe. Lortu informazio gehiago [Google-k](#)

[cookieak erabiltzeko duen moduari buruz](#), eta jakin nola erabiltzen dituen datuak (cookieak barne) gure bazkideen webguneak edo aplikazioak erabiltzen dituzunean.

## Erreferentziako URLa

Web-arakatzailleak helburuko web-orrira bidaltzen duen informazioari deitzen zaio erreferentziako URLa (Uniform Resource Locator edo baliabideen kokatzaile uniformeak). Orri horretara doan esteka batean klik egiten denean gertatu ohi da hori. Arakatzailleak irekitako azken web-orriaren URLa agertzen da erreferentziako URLan.

## Filialak

Google-ren enpresa taldeko kide diren entitateak dira filialak. Tartean, Europar Batasunean kontsumitzaileentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa hauek sartzen dira: Google Ireland Limited, Google Commerce Ltd, Google Payment Corp eta Google Dialer Inc. Lortu informazio gehiago [EBn enpresetarako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei buruz](#).

## Gailua

Google zerbitzuak atzitzeko balio duten tresnak dira gailuak. Adibidez, ordenagailuak, tabletak, bozgorailu adimendunak eta telefono adimendunak dira gailuak.

## Google kontua

Gure zerbitzu batzuk erabili ahal izateko, [Google kontu](#) bat sortu eta datu pertsonal batzuk eman beharko dizkiguzu (normalean, izena, helbide elektronikoa eta pasahitza). Google-ren zerbitzuetan sartzean zure nortasuna egiaztatzeke eta zure kontua babesteko erabiltzen dugu informazio hori, inor zure kontuan baimenik gabe sar ez dadin. Kontua editatu edo ezabatu nahi baduzu, joan Google kontuaren ezarpenetara.

## Identifikatzaile esklusiboak

Arakatzaille, aplikazio edo gailu bat esklusiboki identifikatzeko balio duten karaktere-kateak dira identifikatzaile esklusiboak. Identifikatzailearen arabera, desberdinak izan daitezke haren



iraunkortasuna, erabiltzaileek hura berrezartzeko duten gaitasuna, eta hura atzitzeko modua.

Hainbat helburutarako erabil daitezke identifikatzaile esklusiboak; hala nola segurtasun-neurri gisa, iruzurrak detektatzeko, zure sarrera-ontzia eta antzeko zerbitzuak sinkronizatzeko, zure hobespenak gogoratzeko eta publizitate pertsonalizatua emateko. Adibidez, cookieetan gordetako identifikatzaile esklusiboek esker, webguneek nahiago duzun hizkuntzan bistaritzen dute arakatzailerako edukia. Arakatzailerak konfiguratu egin dezakezu cookie guztiak bazter ditzan edo cookieak bidaltzen zaizkionean horren berri eman diezazun. Lortu informazio gehiago [Google-k cookieak erabiltzeko duen moduari buruz](#).

Arakatzailerak ez diren plataformetan, gailu edo gailuko aplikazio zehatzak ezagutzeko erabiltzen dira identifikatzaile esklusiboak. Adibidez, Android gailuetan iragarki esanguratsuek erakusteko erabiltzen dira identifikatzaile esklusiboak (adibidez, publizitate IDa). Haien [kudeatzeko](#), joan gailuaren ezarpenetara. Halaber, fabrikatzaileek euren gailuetan sar ditzakete identifikatzaile esklusiboak (ID esklusibo unibertsal edo UUID ere deitua). Haietako bat telefono mugikorretako IMEI zenbakia da. Esate baterako, gure zerbitzuak zure gailuaren neurria pertsonalizatzeko edo zure gailuak gure zerbitzuekin dituen arazoak analizatzeko erabil dezakegu gailuaren identifikatzaile esklusiboa.

## Identifikatzeko balio ez duen informazioa

Erabiltzaileei buruzko informazioa da, baina ez du islatzen inongo erabiltzaile identifikagarri edo ez die halakoei erreferentziarik egiten.

## Informazio pertsonal konfidentziala

Informazio pertsonalaren kategoria bat da hau. Isilpeko osasun-datuak, arraza edo jatorri etnikoa, ideia politikoak edo erlijioa eta sexualitateari buruzko datuak biltzen dira hemen, besteak beste.

## Informazio pertsonala

Ematen diguzun informazioan pertsonalki identifikatzen zaituzten datuak dira, hala nola zure izena, helbide elektronikoa edo fakturazio-datuak, baina baita Google-k informazio horrekin zerikusia duela ondorioztatu duen informazioa ere; esaterako, Google-k zure Google kontuarekin erlazionatu duena.

## IP helbidea

Internetera konektatzen den gailu bakoitzari zenbaki bat esleitzen zaio. Zenbaki horri Internet Protokoloko (IP) helbide deritzo. Zenbakiok bloke geografikotan esleitu ohi dira. Horregatik, gailuak nondik konektatzen ari diren jakiteko erabil daiteke informazio hori sarritan.

## Pixel-etiketa

Webguneetan edo mezu elektronikoen testuan ezartzen den teknologia mota bat da pixel-etiketa. Haren helburua zenbait jardueraren jarraipena egitea da, hala nola webguneen ikustaldiena edo mezu elektronikoak ireki izanarena. Cookieekin batera erabili ohi dira pixel-etiketak.

## Zerbitzari-egunkariak

Webgune gehienek bezala, gure zerbitzariak ere automatikoki gordetzen dituzte gure guneetara sartzean egindako orri-eskaerak. Zerbitzari-egunkarietan, normalean, honako hauek sartzen dira: web-eskaera, IP helbidea, arakatzaille mota, arakatzaillearen hizkuntza, eskaeraren data eta ordua eta zure nabigatzailea modu esklusiboan identifikatuko duen cookie bat edo gehiago.

"autoak" hitza bilatuko bazenu, honako itxura hau izango luke ekintza horren erregistroak:

```
123.45.67.89 - 25/Mar/2003 10:15:32 -  
http://www.google.com/search?q=cars -  
Firefox 1.0.7; Windows NT 5.1 -  
740674ce2123e969
```

- `123.45.67.89` Interneteko zerbitzu-hornitzaileak (ISP) erabiltzaileari esleitutako IP helbidea. Erabiltzailearen zerbitzuaren arabera, baliteke zerbitzu-hornitzaileak erabiltzaileari helbide ezberdin bat esleitzea Internetera konektatzen den bakoitzean.
- `25/Mar/2003 10:15:32` Kontsultaren data eta ordua.
- `http://www.google.com/search?q=cars` Eskatutako URLa, bilaketa-kontsulta barne.
- `Firefox 1.0.7; Windows NT 5.1` Erabilitako arakatzaillea eta sistema eragilea.
- `740674ce2123a969` Ordenagailu honen bidez Google-n sartutako lehenengo aldiaren esleitutako cookie ID esklusiboa. (Erabiltzaileek cookieak ezaba ditzakete. Erabiltzaileak cookieak ezabatu

baditu Google-n azken aldiz sartu zenetik, gailu horretatik Google-n sartzen den hurrengo aldian gailuari esleitutako cookie ID eskusiboa erabiliko da.)

## Testuinguru gehiago

### Ahotsari eta audioari buruzko informazioa

Adibidez, Google-k audio-grabaketak gordeko dituen ala ez aukera dezakezu Google Bilaketa, Laguntzailea edo Maps erabiltzen dituzunean. Gailuak audioa aktibatzeke agindu bat hautematen duenean (adibidez, "Hey Google" esaten duzunean), Google-k zure ahotsa eta audioa grabatzen ditu, baita hura aktibatu aurreko segundo batzuk ere. [Lortu informazio gehiago](#)

### aurreneurri egokiak

Esaterako, datuak anonimoki gorde edo enkriptatu ditzakegu, zuri buruzko bestelako informazioari lot ez dakiekeela ziurtatzeko. [Lortu informazio gehiago](#)

### bazkide zehatzei

Adibidez, YouTube-ren sortzaile eta iragarleei neurketa-enpresekin lan egiteko baimena ematen diegu, haien YouTube bideo eta iragarkien ikusleei buruz gehiago jakin dezaten, cookieak eta antzeko teknologiak erabilia. Gure erosketa-orrietako saltzaileak dira beste adibide bat, cookieak erabiltzen baitituzte beren produktuen fitxak zenbat jendek ikusten dituen jakiteko. [Lortu informazio gehiago](#) bazkide horiei eta informazioa erabiltzeko duten moduari buruz.

### beste webgune eta aplikazio batzuetan egiten dituzun jarduerak

Jarduera horiek Google zerbitzuen (besteak beste, kontua Chrome-rekin sinkronizatzea) erabileratik etor daiteke, edo Google-ren bazkide diren gune eta aplikazioetara egin dituzun bisitetatik. Webgune eta aplikazio asko bazkidetu dira Google-rekin euren edukia eta zerbitzuak hobetzeko. Esate baterako, gure publizitate-zerbitzuak (AdSense, besteak beste) edo estatistika-tresnak (Google Analytics, adibidez) erabil ditzakete webguneek, edo bestelako edukia izan dezakete (esaterako, YouTube-ko bideoak). Zerbitzu horiek Google-n egin dituzun jarduerari buruzko informazioa parteka dezakete, eta [kontuaren ezarpenen](#) eta erabiltzen dituzun produktuen arabera (adibidez, bazkide

batek Google Analytics gure publizitate-zerbitzu batekin batera erabiltzen badu), baliteke datu horiek zure datu pertsonalekin erlazionatzea.

[Lortu informazio gehiago](#) gure bazkideen guneak eta aplikazioak erabiltzen dituzunean Google-k zure datuak nola erabiltzen dituen jakiteko.

## **bilaketa-emaiza pertsonalizuak**

Esaterako, Google kontuan saioa hasita baduzu eta Sareko eta aplikazioetako jarduerak kontrolatzeko aukera gaituta, bilaketa-emaiza egokiagoak lortuko dituzu aurreko bilaketetan eta Google zerbitzuetako jardueretan oinarrituta. [Lortu informazio gehiago hemen](#). Saioa hasita ez duzunean ere lor ditzakezu bilaketa-emaiza pertsonalizuak. Bilaketen pertsonalizazio-maila hori nahi ez baduzu, [modu pribatuan bila eta araka](#) dezakezu sarea, edo [saioa hasi gabe egindako bilaketen pertsonalizazioa](#) desaktiba dezakezu.

## **biltzen dugun informazioa bateratu egingo dugu**

Informazioa nola bateratzen dugun adierazten duten adibide batzuk:

- Google kontuan saioa hasita duzula Google-n bilaketak egiten dituzunean, sare publikoko bilaketa-emaizak ikusiko dituzu, baita beste Google produktuetan duzun edukari buruzko informazio garrantzitsua ere; besteak beste, Gmail-en edo Google Calendar-en. Hala nola, hegaldietan, jatetxeetan eta hoteletan egindako erreserben egoera edo argazkiak sar daitezke bertan. [Lortu informazio gehiago](#)
- Gmail bidez norbaitekin harremanetan jarri bazara eta Google dokumentu batean edo Google Calendar gertaera batean gehitu nahi baduzu pertsona hori, Google-rekin oso erraza da, pertsona horren helbide elektronikoa automatikoki osatzen baitu haren izena idazten hasten zarenean. Eginbide horren bidez, errazago parteka ditzakezu gauzak ezagutzen duzun jendearekin. [Lortu informazio gehiago](#)
- Google aplikazioak beste Google produktu batzuetan gorde dituzun datuak erabil ditzake, ezarpenetan oinarrituta eduki pertsonalizatua erakusteko. Adibidez, Sareko eta aplikazioetako jardueretan bilaketak gordeta badituzu, Google aplikazioak albiste-artikuluak edo zure interesei buruzko bestelako informazioa (adibidez, kirol-emaizak) erakuts diezazkizuke jardueretan oinarrituta. [Lortu informazio gehiago](#)

- Google kontua eta Google Home lotzen badituzu, zure informazioa kudea dezakezu eta gauzak egin Google Laguntzailea eginbidearen bidez. Adibidez, gertaerak gehi ditzakezu Google Calendar-era edo eguneko ordutegia lortu, antolatutako hurrengo hegaldiaren egoera ikusi, edo gidatzeko jarraibideak eta bestelako informazioa bidali telefonora. [Lortu informazio gehiago](#)

## **cookieak erabiltzen dituztela behar bezala funtzionatzeko**

Adibidez, "lbc" izeneko cookieak hainbat Google dokumentu arakatzailerak bakarrez irekitzea ahalbidetzen dizu. Cookie hori blokeatzen baduzu, Google Dokumentuak aplikazioak ez du behar bezala funtzionatuko. [Lortu informazio gehiago](#)

## **edukian eta iragarkietan izandako ikustaldiak eta elkarrekintzak,**

Adibidez, iragarleei txosten bateratuak bidaltzeko biltzen dugu iragarkietan izandako ikustaldi eta elkarrekintzei buruzko informazioa. Txosten horietan, besteak beste, orriren batean iragarleen iragarkiak erakutsi ditugun eta haiek norbaitek ikusi dituen adierazten dugu. Bestelako elkarrekintza batzuk ere neurtzen ditugu; besteak beste, nola mugitzen duzun sagua iragarki baten gainean edo iragarkia agertzen den orriarekin elkarrekintzan aritu zaren ala ez.

## **erabilera okerrak eragozteko**

Esaterako, kontua arriskuan dagoela jakinarazteko aukera ematen digu segurtasun-mehatxuei buruzko informazioak, hala izan dela uste badugu (une horretan, kontua babesteko urratsak egiten lagunduko dizugu).

## **erabilera okerrak hautemateko**

Gure sisteman spama, malwarea, legez kanpoko edukia eta gure gidalerroak urratzen dituzten bestelako erabilera okerrak hautematen ditugunean, zure kontua desgaitu dezakegu edo egokia den bestelako eran ekin. Zenbait egoeratan, salatu egingo ditugu erabilera okerrak dagokien autoritateen aurrean.

## **erabilgarrien gertatuko zaizkizun iragarkiak**

Adibidez, YouTube-n gozogintzari buruzko bideoak ikusten badituzu, litekeena da gozogintzarekin erlazionatutako iragarki gehiago ikustea sarea arakatzean. IP helbidea ere erabil dezakegu gutxi gorabeherako kokapena zehazteko. Horrela, "pizza" bilatzen baduzu, pizza etxera eramateko hurbileko jatetxeen iragarkiak eskainiko dizkizugu. Lortu informazio gehiago [Google iragarkiei](#) buruz eta [iragarki jakin batzuk agertzearen zergatiari](#) buruz.

## **gailuaren inguruko gauzei buruzko informazioa**

Android-en Google-ren Kokapen-zerbitzuak erabiltzen badituzu, kokapena erabiltzen duten aplikazioen errendimendua hobe dezakegu, hala nola Google Maps-ena. Google-ren Kokapen-zerbitzuak erabiltzen badituzu, gailuak hainbat informazio bidaliko dio Google-ri; esaterako, kokapenari, sentsoreei (azelerometroa, adibidez) eta inguruko telefonia mugikorreko dorreei eta Wi-Fi sarbide-puntuei (adibidez, MAC helbidea eta seinalearen intentsitatea) buruzkoa. Horiek guztiek kokapena zehazten lagunduko dute. Gailuaren ezarpenetan gai ditzakezu Google Kokapen-zerbitzuak. [Lortu informazio gehiago](#)

## **gailuaren sentsore-datuak,**

Gailuak sentsoreak ditu, kokapena eta mugimendua hobeto ulertzeko balio dutenak. Esaterako, azelerometroa badu, abiadura zehaztu ahal izango duzu; edo, giroskopia badu, zer norabidetan zoazen jakin.

## **gailuei**

Adibidez, aplikazioak instalatzeko edo Google Play-n erositako filmak ikusteko zer gailu erabili nahi duzun aukeratzen laguntzeko erabil dezakegu zure gailuetako informazioa. Halaber, zure kontua babesteko ere erabiltzen dugu informazio hori.

## **Google aplikazioak dituen Android gailu bat**

Google aplikazioak dituzten Android gailuen artean daude Google-k eta gure bazkideek saldutakoak, hala nola telefonoak, kamerak, ibilgailuak, gailu eramangarriak eta telebistak. Gailu horiek Google Play zerbitzuak eta aurretik instalatutako bestelako aplikazioak erabiltzen dituzte; adibidez, Gmail, Maps, telefonoaren kamera eta markagailua, testua ahots bihurtzeko eginbidea, teklatu bidezko idazketa eta segurtasun-eginbideak. Lortu informazio gehiago [Google Play Services](#)-i buruz.

## Google kontuarekin sinkronizatu

Chrome Google kontuarekin sinkronizatu baduzu bakarrik gordeko da Chrome-ko arakatzehistoria kontuan. [Lortu informazio gehiago](#)

## Google zerbitzu zehatzetatik

Adibidez, Blogger-etik [bloga](#) ezaba dezakezu, edo [zurea den Google webgune bat](#) Google Sites-etik. Halaber, aplikazioei, jokoei eta Play Store-ko bestelako edukiei buruz emandako [iritziak](#) ezaba ditzakezu.

## Google-ren bazkide

Google-renak ez diren bi milioi webgune eta aplikazio baino gehiago bazkidetu dira Google-rekin iragarkiak erakusteko. [Lortu informazio gehiago](#)

## gure erabiltzaileen

Adibidez, sareko edukia moderatzeko jardunbideen inguruko erabilera okerrak saihesteko eta gardentasuna eta erantzukizuna handitzeko, gure zerbitzuetatik edukia ezabatzeko eskaerekin erlazionatutako datuak Lumen-ekin partekatzen ditu Google-k; Lumen-ek, berriz, eskaera horiek ikerketa-helburuekin biltzen eta aztertzen ditu, Interneteko erabiltzaileei haien eskubideak ulertzen laguntzeko. [Lortu informazio gehiago](#).

## gure zerbitzuak emateko

Gure zerbitzuak eskaintzeko informazioa nola erabiltzen dugun erakusten duten adibide batzuk:

- Gailuari esleitutako IP helbidea erabiltzen dugu eskatu dituzun datuak bidaltzeko; besteak beste, YouTube bideo bat kargatu ahal izateko.
- Gailuko cookieetan gordetako identifikatzaile eksklusiboak erabiltzen ditugu Google kontuan sartzen den pertsona benetan zu zarela egiaztatzeko.

- Google Argazkiak zerbitzuan kargatzen dituzun argazkiak eta bideoak erabiltzen ditugu parteka ditzakezun albumak, animazioak eta beste gauza batzuk sortzeko. [Lortu informazio gehiago](#)
- Hegaldiak berresteko mezu elektronikoak erabil ditzakegu Gmail kontuan fakturatzeko botoi bat sortzeko.
- Zerbitzuak edo produktu fisikoak erosten dizkiguzunean, hainbat datu eman diezazkigukezu; adibidez, bidalketa-helbidea edo entregatzeko argibideak. Hainbat helburutarako erabiltzen dugu informazio hori; esate baterako, eskaerak prozesatzeko, osatzeko eta entregatzeko, baita erositako produktu edo zerbitzuaren inguruko laguntza eskaintzeko ere.

## Gure zerbitzuak pertsonalizatzea

Adibidez, Google-ren Doodle-a bistara dezakegu bilaketa zerbitzuaren orri nagusian, zure herrialdeko berezko gertakizunen bat ospatzeko.

## gure zerbitzuek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko

Esaterako, etengabe kontrolatzen dugu sistema arazoak bilatzeko. Halaber, eginbideren batean arazoren bat aurkitzen badugu, hura hasi aurretik bildutako jardueri buruzko informazioa berrikusi ahal badezakegu, azkarrago konponduko dugu arazoa.

## hirugarrenen

Esaterako, informazioa prozesatzen dugu, eskubidedunei erabilera-estatistiken berri emateko, gure zerbitzuetan haien edukia nola erabili dugun jakin dezaten. Halaber, informazioa prozesa dezakegu, jendeak zure izena bilatzen badu eta zuri buruzko informazioa publikoki eskuragarri duten guneen bilaketa-emaitzak erakusten baditugu.

## hobekuntzak egiteko

Adibidez, cookieak erabiltzen ditugu jendeak gure zerbitzuekin dituen interakzioak aztertzeko. Analisi horrek produktu hobeak sortzen laguntzen digu. Esaterako, jendeak zeregin jakin batekin denbora gehiegi pasatzen duela edo urrats guztiak amaitzeko arazoak dituela ohartarazten digute. Horri esker, eginbide hori berriro diseina dezakegu eta produktua guztiontzat hobetu.



## informazioa lot dezakete

Lehen eskuko cookieek bilatzen duten informazioan oinarritzen da Google Analytics. Horrek esan nahi du Google Analytics-en bezeroek ezartzen dituztela cookieak. Gure sistema erabilia, Google Analytics-ek sortutako datuak beste webgune batzuetara egindako bisitei buruzko hirugarrenen cookieekin erlaziona ditzakete Google Analytics zerbitzuko bezeroak nahiz Google-k. Adibidez, iragarle batek beste cookie batzuekin batera erabil ditzake bere Google Analytics-eko datuak, iragarki eraginkorragoak sortzeko edo bere trafikoa sakonago aztertzeko. [Lortu informazio gehiago](#)

## Interneten zuretzat garrantzitsuen diren pertsonak

Adibidez, idazten ari zaren mezuaren "Hartzailea", "Cc", edo "Bcc" eremuan helbideren bat idazten duzunean, Gmail-ek helbideak iradokiko dizkizu, [gehien erabiltzen dituzun](#) kontaktuetan oinarrituta.

## iragarki pertsonalizatuak

Iragarleen informazioan oinarritutako iragarki pertsonalizatuak ere ikusiko dituzu. Iragarle baten dendan zerbait erosi baduzu, adibidez, bisita horri buruzko informazioa erabiliko dute iragarkiak erakusteko. [Lortu informazio gehiago](#)

## iragarleengandik, haien izenean publizitate- eta ikerketa-zerbitzuak emateko

Esaterako, iragarleek haien fideltasun-txartelen programetako datuak karga ditzakete haien kanpainen funtzionamendua hobeto ulertzeko. Pertsonen informazioa erakusten ez duten txosten bateratuak baino ez dizkiegu bidaltzen iragarleei.

## joerak erakusteko

Jende asko zerbait bilatzen hasten denean, hori erabilgarria izan daiteke une horretako joera zehatzen berri izateko. Google Joerak Google gunean egin diren bilaketan laginak hartzen ditu, bilaketek denboraldi batean izan duten ospea kalkulatzeko eta emaitza horiek publikoki partekatzen ditu datu orokor gisa. [Lortu informazio gehiago](#)

## kentzeko

Esaterako, lehen azaldu bezala, Google-ren zerbitzu zehatzetatik [edukia kentzeko eska dezakezu](#) (zure informazioa barne), lege aplikagarriei (datuak babesteko legea barne) eta gure gidalerroei jarraikiz.

## kontuzko kategoriatan

Iragarki pertsonalizatuak erakusten dizkizugunean, gure ustez interesatzen zaizkizun gaiak erabiltzen ditugu, jardueretan oinarrituta. Adibidez, "Sukaldaritza eta errezetak", "Hegazkin-bidaiak" edo antzeko gaietarako iragarkiak ikus ditzakezu. Ez ditugu kontuzko kategoriak jorratzen dituzten gaiak erabiltzen edo pertsonalizatutako iragarkiak erakusten; besteak beste, arraza, erlijioa, sexu-orientazioa edo osasuna jorratzen dutenak. Era berean, gure zerbitzuak erabiltzen dituzten [iragarleei gauza bera eskatzen diegu](#).

## lege-prozesu edo gobernuaren eskaera aplikagarriak

Beste teknologia- eta komunikazio-enpresek bezala, Google-k ere mundu osoko gobernu eta auzitegien eskaerak jasotzen ditu aldizka, erabiltzaileen datuak ezagutaraz ditzan. Legezko eskaera horiek gordetzeko garaian, Google-n gordetzen dituzun datuen pribatutasuna eta segurtasuna errespetatzea hobesten dugu. Gure lege-taldeak eskaera guzti-guztiak berrikusten ditu, edozein motatakoak direla ere, eta maiz atzera botatzen ditu, eskaerak orokorregia dirudienean edo prozesuari behar bezala jarraitu ez dionean. Lortu informazio gehiago gure [Gardentasun-txostenean](#).

## mundu osoan ditugu zerbitzariak

Adibidez, datu-zentroak ditugu [mundu osoan](#), gure produktuak erabiltzaileentzat eskuragarri egon daitezen etengabe.

## ordainketa-informazioa

Adibidez, Google kontuan kreditu-txartel bat edo beste ordainketa-metodoren bat gehitzen baduzu, gure zerbitzuetan gauzak eros ditzakezu, hala nola aplikazioak Play Store-n. Bestelako informazioa

ere eskatu ahal dizugu, hala nola enpresaren IFZ, ordainketak prozesatzeko. Zenbait kasutan, identitatea egiaztatu beharko dugu eta hori egin ahal izateko behar dugun informazioa eskatuko dizugu.

Gure adin-eskakizunak betetzen dituzula ziurtatzeko ere erabil dezakegu ordainketa-informazioa; adibidez, jaiotze-data okerra zehaztu eta Google kontua izateko gazteegia zarela adierazten baduzu.

[Lortu informazio gehiago](#)

## publikoa

Esaterako, Google-ren edukia kentzeari buruzko gidalerroei eta lege aplikagarriei jarraikiz prozesatzen dugu [edukia gure zerbitzuetatik kentzeko eskaerekin](#) erlazionatutako informazioa, eskaera horiek ebaluatzeko eta eskaerak gauzatzean gardentasuna bermatzeko, erantzukizuna hobetzeko, eta iruzurrak eta erabilera okerrak saihesteko.

## Publikoari mesede egiten

Esaterako, gure zerbitzuetatik [edukia ezabatzeko eskaerekin](#) erlazionatutako informazioa prozesatzen dugu jendea hezteko, ikerketa sustatzeko eta eskaera horiei buruzko gardentasuna bermatzeko.

## publikoki eskuragarriak diren iturburuak

Esaterako, Google-ren hizkuntza-ereduak trebatu eta Google Translate bezalako eginbideak sortzeko bilduko dugu denentzat eskuragarri dagoen informazioa saretik edo beste iturri publiko batzuetatik. Bestela, zure enpresaren informazioa webgune batean agertzen bada, litekeena da hura indexatzea eta Google-ren zerbitzuetan bistaratzea.

## segurtasuna eta fidagarritasuna

Gure zerbitzuak eskaintzeko informazioa nola erabiltzen dugun erakusten duten adibide batzuk:

- IP helbideak eta cookieen datuak biltzen eta aztertzen ditugu, automatizatutako erabilera okerraren aurka babesteko. Erabilera oker horren barnean daude, besteak beste: Gmail

erabiltzaileei spama bidaltzea, iragarleei dirua lapurtzea iragarkietan iruzurrean klik eginda, edo edukiak zentsuratzea zerbitzuaren ukatze banatuaren (DDoS) eraso bat abiarazita.

- Gmail-eko "Kontuaren azken jarduerak" eginbideak norbaitek zure posta elektronikoa zuk jakin gabe atzitu duen ala ez eta, hala bada, noiz atzitu duen jakiten laguntzen dizu. Gmail-en izandako azken jarduerari buruzko informazioa erakusten dizu eginbide horrek; besteak beste, posta zer IP helbideetatik atzitu duten, haiekin erlazionatutako kokapenak zein diren eta zer ordu eta datan atzitu duten. [Lortu informazio gehiago](#)

## telefono-zenbakia

Kontuan telefono-zenbakia gehitzen baduzu, hainbat helbururekin erabil daiteke Google zerbitzuetan, ezarpenen arabera. Adibidez, pasahitza ahaztuz gero, kontuan sartu ahal izateko erabil dezakezu; baita ere, jendeari zu aurkitzen eta zurekin harremanetan jartzen laguntzeko eta iragarki esanguratsuagoak ikusteko balio du. [Lortu informazio gehiago](#)

## zerbitzuak erabiltzen badituzu deiak edo mezuak bidali eta jasotzeko

Hauek dira zerbitzu horietako batzuk:

- Google Voice, deiak egiteko eta jasotzeko, testu-mezuak bidaltzeko eta ahots-mezuak kudeatzeko.
- Google Meet, bideo-deiak egiteko eta jasotzeko.
- Gmail, mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko.
- Google Chat, mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.
- Google Duo, bideo-deiak egiteko eta jasotzeko eta mezuak bidaltzeko eta jasotzeko.
- Google Fi, telefono-planerako

## ziurtatzeko eta hobetzeko

Esaterako, jendeak iragarkiekin dituen interakzioak aztertzen ditugu, gure iragarkien funtzionamendua hobetzeko.

## zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna

Hau da, zure informazioa prozesatzeko eta pribatutasun-lege aplikagarriak gordetzeko ardura duen Google-ren afiliatua.